

## IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

<b>Titulua:</b> ERIZAINZAKO GRADUA	<b>Mota:</b> Hautazkoa
<b>Ikasgaia:</b> Zauri kronikoak dituen pertsonaren zainketa integrala	<b>Kronograma:</b> 2. lauhilekoa
<b>Kodea:</b> 28172	<b>Hizkuntza:</b> Euskara/Gaztelania
<b>Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua</b> Hautazko irakasgai bat da, Erizaintzako Gradua titulazioaren seigarren seihilekoan ematen dena. Ikasleei zauri kronikoak dituzten pertsonen zainketa integrala kudeatzeko trebetasunak ezagutu eta eskuratzeko aukera eman nahi die.	<b>ECTS kredituak:</b> 4,5
<b>Sartzeko eskakizunak / gomendioak</b> Sartzeko baldintzarik gabe.	<b>Kurtsoa:</b> 3

IRAKASLEAK	Tfno	Helbide elektronikoa
<b>Irakasgaiaren arduraduna</b> Iván Durán Sáenz	945 219048	<a href="mailto:ivan_duran001@ehu.eus">ivan_duran001@ehu.eus</a> <a href="mailto:ivan.duransaenz@osakidetza.eus">ivan.duransaenz@osakidetza.eus</a>
<b>Euskarazko lerroko irakasleak</b> Raquel Tejero Velasco		<a href="mailto:RAQUEL.TEJEROVELASCO@osakidetza.eus">RAQUEL.TEJEROVELASCO@osakidetza.eus</a>

## GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Zauri kronikoek pertsonengan duten irismen epidemiologiko, ekonomiko eta biopsikosoziala ebaluatzea.
- G2. Zaurien orbaintzearen mekanismo fisiopatologikoak azaltzea.
- G3. Zauri kronikoak dituzten pertsonen egoera klinikoa baloratzea.
- G4. Zauri kronikoak dituzten pertsonentzako zainketa-planak egitea, eta tratamenduen hautaketa justifikatzea.

## IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1: Zauri kronikoek zer ondorio eragiten dituzten pertsonengan eta osasun-sistemetan arrazoitzen du.
- IE2: Zauri kronikoak bereizten ditu eta haien etiologia azaltzen du.
- IE3: Zainketa-plan indibidualizatua diseinatzen du eta esku-hartzeak argudiatzen ditu.
- IE4: Ebidentzia zientifikoaren arabera zauri kronikoak zaintzeko aplikatzen diren osasun-produktuen erabilgarritasuna azaltzen du.

## EDUKIAK

### I. UNITATEA: LARRUAZALEKO LESIOAK DITUZTEN PERTSONEN ARRETA KUDEATZEKO SARRERA

1.1 Epidemiologia, kudeaketa eta kalitatea.

### II. UNITATEA: LARRUAZALA. OINARRIZKO KONTZEPTUAK.

2.1. Larruazala gogoratzea: anatomofisiologia, larruazal osasuntsua, larruazala bizitzaren etapa guztietan

2.2. Larruazaleko lesioen orbaintze-prozesu fisiologikoa eta fisiopatologikoa.

### III. UNITATEA: MENDEKOTASUNAREKIN ETA/EDO JATORRI SISTEMIKOAREKIN LOTUTAKO LARRUAZALEKO LESIOAK

3.1 Mendekotasunarekin lotutako larruazaleko lesioen prebentzioa, diagnostikoa eta sailkapena.

3.2 Bizi-konpromiso larriengatiko lesioen diagnostikoa eta sailkapena.

### IV. UNITATEA: BEHEKO GORPUTZ-ADARREKO ULTZERAK (UEI)

4.1. Etiologia benoso, iskemiko eta neuropatikoko ultzeren diagnostikoa eta sailkapena eta zauri atipikoak.

### V. UNITATEA: PREBALENTZIA TXIKIKO LESIOAK.

5.1. Tumore-zauriak, zauri traumatikoak eta kirurgiko kronifikatuak, epidermolisi bullosa, erredurak, hozkaden, ziztaden edo parasitoen ondoriozko ultzerak eta jatorri infekziosoko beste batzuk diagnostikatzea eta sailkatzea (Lepra edo Buruli).

### VI. UNITATEA: LARRUAZALEKO LESIOAK DITUEN PERTSONA ZAINTZA.

6.1 Larruazaleko lesioak dituen pazientearen zaintza integrala: patologia konkomitantea, adina, tratamendu farmakologikoa, sistema immunologikoa, erositasuna eta nutrizio-egoera. Lesioak ebaluatzea eta erregistratzea.

6.2 Tokiko maneia: zauriaren ohea prestatzean landu beharreko alderdiak.

6.3 Tokiko maneia: orbaintzea estimulatzea, zelulak konpontzea eta birsortzea

**Mintegiak eta Laborategiko praktikak / Tailerrak:** Kontsultatu ikaslearen koadernoak.

GAI UNITATEA	IRAKASLEAK	KLASE MAGISTRALEN ORDUAK	MINTEGI-ORDUAK	TAILER-ORDUAK
I-VI	Irene Loza Quintero	26	6	10
GUZTIRA		<b>26</b>	<b>6</b>	<b>10</b>

## METODOLOGIA

Planteatutako gaitasunak eskuratzeko, metodologia honi jarraituko zaio:

- **Klase magistralak:** eskola teorikoak aldean, edukiak aurkezteko eta konplexutasun handiagoko gaiak azaltzeko.
- **Mintegiak:** irakaslearen eta ikasle-talde txiki baten arteko elkarreragin naturala errazten duen irakaskuntza. Kasuak aztertzea, suposizioak ebatzea, problemak ebatzea, gai teoriko erraz bat azaltzea. Autoprestakuntzara eta berdinen arteko lankidetzeta-lanera bideratutako irakaskuntza-metodologia.
- **Laborategiko praktikak:** jarduera parte-hartzaileak, bibliografia zientifikoa irakurriz eskuratutako ezagutza teorikoa praktikan jartzeko. Jarduera horiek ikasleei beren ikaskuntza-prozesuari buruzko "feedback" a emateko ere balio dute.

Irakasgaia garatzeko, ikasleak konpromisoa hartu behar du lan-eritmo presentzialari eta ez-presentzialari eusteko.

LAN PRESENTZIALA (42 ORDU)		
klase magistrala	Mintegia	Laborategiko praktikak / Tailerra
26	6	10

LAN EZ-PRESENTZIALA (70,5 ORDUAK)		
Zuzendutako ikerketa	Bakarkako lana	Talde-lana
25	23	22,5

GUZTIRA	
ECTS	4,5
ORDUAK	112,5

### EBALUAZIO-SISTEMAK

Ikasgai hau gainditzeko beharrezkoa izango da bi ebaluazio-sistemetak edozeinetan (jarraituan eta amaierakoan) lau gaitasunak beren balioaren %50arekin edo gehiagorekin gainditzea, edo bestela, ikasleak ez du gaindituko.

### OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Ebaluazio jarraituko sistemak honako jarduera hauek ditu:

- GARATZEKO IDATZIZKO PROBA (AZTERKETA) %40
- LANAK: BANAKAKOAK % 10 ETA TALDEKOAK % 20
- MINTEGIAK %20
- PRAKTIKAK TALDEAN EGITEA (ARIKETAK, KASUAK EDO BURUKETAK) %10

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAR EN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA		%AZKEN KALIFIKAZIOA
G1	IE1	Klase magistralak Mintegiak	Idatzizko proba		%5
G2	IE2	Klase magistralak	Idatzizko proba		%5
G3	IE3	Klase magistralak Jarduera kooperatiboak Mintegiak Laborategiko praktikak/ Tailerrak	Idatzizko proba	%20	%45
			Bakarkako lana	%10	
			Mintegiak	%10	
			Laborategiko praktikak	%6	
G4	IE4	Klase magistralak Jarduera kooperatiboak Mintegiak Laborategiko praktikak/ Tailerrak	Idatzizko proba	%10	%45
			Talde lana	%20	
			Mintegiak	%10	
			Laborategiko praktikak	%4	

**Idatzizko proba (azterketa):** proba hau UPV/EHUk ezarritako azterketen epealdi ofizialean egingo da.

**Laborategiko praktika:** laborategiko praktika ikasturtearen 16. eta 24. asteen artean egingo da. Eskolara joatea derrigorrezkoa da. Bertaratzen ez diren ikasleek gaitasunen maila idatzizko proba baten bitartez baino ezingo dute erakutsi halaberrez (azterketa).

**Mintegiak:** «mintegiak» izeneko ebaluazio-probak ikasturtearen 16. eta 24. asteen artean egingo dira. Aipatutako mintegiak egiteko datak ebaluazio jarraituaren kasuan ikaslearen koadernoan zehaztuko dira, eta hori ikasleen eskura egongo da eGelan irakasgaia ematen den lauhilekoaren hasieratik.

Ikasgaiaren kalifikazioa lortzeko ebaluazio-jarduera bakoitzaren kalifikazioak batuko dira. Ikasgai hau ebaluazio jarraituko sisteman gainditzeko, gaitasun bakoitza eta ebaluazio-proba bakoitza gainditu beharko da (mintegiak, laborategiko proba, banakako lana eta idatzizko probak) gutxienez beren balioaren %50arekin (ikus 1. taula).

Hala ere, ikasleek honakoa hartu beharko dute kontuan:

1. Mintegi edo laborategiko praktika bakar batera bertaratu ez bada eta justifikatu badu (\*) edo hori gainditu ez badu, errekupezatzeko aukera izango du, "Osoko saio" mintegiaren kasuan izan ezik. Errekupezazioa azterketen epealdi ofizialean egingo da. Justifikatu gabeko ez-bertaratzeak amaierako ebaluazio-sistemara igarotzea ekarriko dute.
2. "Osoko saioa" mintegia ez gainditzearen edo bertara ez joatearen kasuan (justifikatu edo ez), ikaslea amaierako ebaluazio sistemaren bidez ebaluatuko da, ohiko eta ezohiko deialdietan.
3. Ikasle batek mintegi edo laborategiko praktika bat baino gehiago gainditzen ez badu edo haietara joaten ez bada (justifikatuta egon edo ez), amaierako ebaluazio sistemaren bidez ebaluatuko da, ohiko eta ezohiko deialdietan.

(\*) Honako hauek hartzen dira mintegi batera ez aurkezteko arrazoitzat, frogagiria aurkeztuta: odol-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen gaixotasuna, gaixotasuna edo heriotza, eta nahitaezko betebeharrak betetzea, baldin eta horiek ezin badira mintegi-ordutegitik kanpo egin (epaitegiko zitazioak, azterketa ofizialak, hauteskunde-mahaian parte hartzea).

Ebaluazio jarraituko sistema aukeratu duten ikasleen kasuan, laborategiko praktikan eta mintegietan lortutako emaitza positiboak irakaskuntza-gida honi dagokion ikasturtean zehar gordeko dira.

### **EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA**

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAAr argitaratutako ebaluazio-sistemaren 8. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

Deialdiari uko egiteak «Ez aurkeztuaren» kalifikazioa ekarriko du

### **OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA**

Azken ebaluazioa ebaluazio jarraituaren salbuespena da ebaluazio jarraitua egin ezin duten ikasleentzat: Justifikatutako arrazoiak direla-eta ebaluazio jarraituko sistemaren parte hartu ezin duten ikasleek amaierako proba bakarria eskatu ahalko dute, zeinak ikasgaiaren notaren %100 balioko duen.

Hauek dira justifikatutako arrazoi horiek dira: lan-arrazoiak, genero indarkeriaren biktimak, erditzea, adopzioa, harrera edo 3 urtetik beherako seme-alabak norbere ardurapean izatea, mendekotasuna duen senidea zaintzea, ikasleak %33ko ezintasuna edo handiagoa izatea, goi-mailako kirolaria izatea, bidaiatzea edo dedikazio handia eskatzen duten jarduera artistikoetan/kulturaletan aritzea, beste goi-mailako ikasketa batzuekin bateratzea, kargu politikoekin bateratzea, jarduera sindikalak izatea, ikasleen ordezkartzean aritzea, GKEak edo beste batzuk.

Amaierako ebaluazioan, ikasleek ebaluazio-jarduera hauen bidez frogatu beharko dute zer gaitasun lortu duten:

- IDATZIZKO AZTERKETA % 90
- PRAKTIKAK TALDEAN EGITEA (ARIKETAK, KASUAK EDO BURUKETAK) % 10

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	KALIFIKAZIO GLOBALA %
G1, G2, G3, G4	IE1, IE2, IE3, IE4	Idatzizko proba	Idatzizko proba	%90
G3-G4	IE3, IE4	Laborategiko praktikak /Tailerrak	Simulazioa	%10

Ebaluazio-sistema honetan parte hartzeko, ikasle bakoitzak ebaluazio jarraituko sistemari uko egiten diola adierazteko idazki bat aurkeztuko dio irakasgaiaren irakasle arduradunari, 2024-2025 ikasturteko irakasgaiari dagokion seihilekoaren 9. astea baino lehen.

Azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

Sistema honek ikaskuntzako emaitzak ebaluazio-proba baten bidez ebaluatzeko aukera jasotzen du. Proba azterketa batez edo gehiagorik egongo da osatuta eta azterketen epealdi ofizialean egingo da (martxoaren 13ko 2017/1311 EHAAn jasotako 8. artikuluan). Ikasgai hau gainditzeko beharrezkoa izango da amaierako ebaluazio-sistemaren ikasgaiaren gaitasun guztiak gainditzea, beren balioaren %50arekin edo gehiagorekin, edo bestela, ikasleak ez du gaindituko.

**Laborategiko praktika**, hau da, praktikak taldean egitea, irakasgaia gainditzeko ezinbesteko baldintza da.

### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA**

Ohiko deialdian irakasgaia gainditzen ez duten ikasleek, aukeratu duten ebaluazio-sistema edozein dela ere, eskubidea izango dute ezohiko deialdiaren azken ebaluazio-proba osatzen duten azterketetara eta ebaluazio-jardueretara aurkezteko.

Amaierako ebaluazio-sistemaren ohiko deialdian zehaztutakoa ezohiko deialdian ere beteko da. Ebaluazio jarraituko sistema aukeratu duten ikasleen kasuan, mintegietan, laborategiko praktikan eta banakako lanean lortutako emaitza positiboak irakaskuntza-gida honi dagokion ikasturtean zehar gordeko dira.

Ezohiko deialdiaren azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

## TAILERRETARA JOATEKO NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Uniformea eta arauzko eskalapoiak.

## INFORMAZIO-ITURRIAK

### Oinarrizko bibliografía

- \* García-Fernández FP, Soldevilla-Agreda JJ, Torra Bou JE, editores. Atención Integral de las Heridas Crónicas. 2.a ed. Logroño: GNEAUPP-FSJJ; 2016.
- \* Rumbo Prieto, JM. "E.V.I.T.A.N.D.O" a las upp: acrónimo nemotécnico para la prevención de las úlceras por presión según la evidencia. enferm dermatol. 2016; 10(27)
- \* Guía de actuación para la prevención y cuidados de las úlceras por presión. Osakidetza. 2017
- \* Guía de Práctica Clínica. Consenso sobre Úlceras vasculares y pie diabético de la AEEV. 3ª edición. 2017
- \* Marinello Roura J, Verdú Soriano J (Coord.). Conferencia nacional de consenso sobre las úlceras de la extremidad inferior (C.O.N.U.E.I.). Documento de consenso 2018. 2a ed. Madrid: Ergon; 2018
- \* Probst S. Cuidado de Heridas en Enfermería. Un Enfoque Centrado en la Persona. 3.a ed. Madrid: Elsevier; 2021.

### Intereseko helbide elektronikoak:

- \* <https://ewma.org/> (European Wound Management Association)
- \* <https://gneaupp.info/> (Presio-ultzerak eta zauri kronikoak aztertze eta aholkularitza emateko talde nazionala)
- \* <https://aeevh.org/> (Asociación Española de Enfermería Vascular y Heridas)

## OHARRAK

Irakasgaiaren hasieran, unitate tematikoekin lotutako dokumentazioa jarriko da ikasleen eskura eGelan.

## TUTORETZAK

Irakasgaiko irakasleekin egindako tutoretza-eskaerak posta elektronikoz izapidetu beharko dira, irakasgai arduratzen den irakaslearen bitartez. [ivan\\_duran001@ehu.eus](mailto:ivan_duran001@ehu.eus) eta, ahal dela, 3-4 ikasleko talde batentzat eskatuko dira. Ez daude eskola presentzialen absentiak ordezkatzeri bideratuta.